

BERRIEMAILEAK

Deskribapena: Pantaila hiru zatitan banatzen da, zati bakoitza korrespontsal edo berriemaile batekin, Ane Pedruzo (Gasteiz), Aitor Abaroa (Lekeitio) eta Argitxu Camus (Ezpeize):

Kike (off ahotsa): Zuen inguruan, nongo etorkinak dituzue?

Ane Pedruzo: “Ba, Gasteizen, Araban, garai batean Espainiako toki ezberdinetatik etorritakoei, ba, azken urteetan gehitu zaizkie, ba, txinatar asko, hegoamerikar asko ere bai, arabiarak, afrikarrak ere bai, Senegalgo jende asko eta bueno, egia esan, auzokide, kultura eta hizkuntz ezberdinetako auzokide asko ditugu eta bueno, ba oso anitzak gara, bai.”

Argitxu Camus: “Interesgarria da. Nire inguruaz mintzatzeko, Xübero eta Behenafarroaz, ez nuke erranen hain koloretsua denik. Egia da, bo, iparraldeko kostaldea, beste zerbait da, hor denetarik baita. Baina egia da, leku rurala baita beraz nire ingurumena, hor ez dela hainbeste etorkin berririk. Horiek erranik, duela hogeita hamar urte arte baziren etorkinak Maule inguruan ziren fabriketara etorriak eta horiek beraz, nafartarrak bai eta ere aragonesak eta portuges ainitz eta badakit nire aitanik erranik edo aitak erranik nola han denboran, Maulera zihoazen eta han espainola entzuten zela gehiago euskara edo frantsesa baino ere.”

Aitor Abaroa: “Bai, guk Lekeitio eta inguruetan be, azken urteotan portugaldarrak, errumaniarrak be bai etorri dira, ezta? Eta egixa da Harritzuk esaten dabena, ezta? Espainieraz edo gaztelaniaz ba bueno, errazago ikasten dabenez, ba, hori egiten dabe eta euskerara ez dira askorik hurbiltzen. Aldiz, Gasteizen modura afrikarrak eta senegaldarrak be badagoz gure inguruan eta horrek, egixe esan, txapeldunak dira euskeraz ikasten. Igual gaztelania be arrotza edo eurena ez danez, ba euskerara hurbiltzen dira eta senegaldar asko dauzkagu adibidez, euskeraz ondo ederto itten dabena eta harreman naturala daukagu eurekin.”